

1. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Jende askori gertatu zaio aterki bat lapurto izana, gainera aterkia askotan erabiltzen den produktu bat da. Horregatik, gure helburuak segurtasuna zabaltzea eta lasaitasuna bermatzea direnez, gure produktua egoera horretarako egokia da.

Gure produktua gizarteko edozein pertsonari bideratua dago, adineko jendea, gazteak, gizon zein emakume, etab., hau da, aterkia erabiltzen duen edozein pertsonari. Erabiltzailea eta



eroslea pertsona desberdinak izan daitezke. Adibidez, 6 urteko ume batek gure produktua erabil dezake, baina berak ez du erosiko. Gainera, mundu mailan salduko dugu. Batez ere geografikoki euritsuak diren lekuetan salduko dugu eta edozein maila ekonomiko duen pertsonari bideratuta dago produktua. Gure helburu nagusi bat poltsiko guztientzat izatea da. Merkeegia ez da izango baina garestiegia ezta ere,

hau da, aterki normal batek, 12€ inguru bali dute eta gure produktuak 10-15€ inguruan balioko du.